


**GOSEARI**  
**AURRE EGIN**  
**POBREZIA**  
**GUTXITZEKO**





# Janariak bizia ematen digu


HONAKO TOMATE HAUEK PAUSU BATZUK EMAN BEHAR DITUZTE GURE PLATERRARA IRITSI ARTE.  
ORDENATU PAUSU HORIEK ZENBAKI BAT (1etik 8ra) IDATZIZ.




Tomateak baserritik hirira eramatea.



Landarea ureztatzea, belar gaiztoak kentzea.




Baratzeko tomateak biltzea.



Tomateak apalategietan jartzea, jendeak eros ditzan.



Jendeak tomateak erostea.



Tomateak garbitzea, xerratan moztea, olio-pixka bat jartzea.




Lurra ereiteko prestatzea.



Tomateak kaxatan sartzea, dendara eramateko.

IDATZI FAKTOREA HAUEK DAGOZKIEN ETAPEN ARTEAN

BILTEGI ONA	ONDO UREZTATZEA	JANARIA PRESTATZEN JAKITEA	GOLDATZEN JAKITEA
LANDATZEN JAKITEA	EGUZKIA	LAN EGITEKO OSASUNA	HAZI ONAK
KAMIOI HOZKAILUAK	ERREPIDE ONA	EROSTEKO DIRUA	BEHARREZKO EURIA



# Goseak min egiten du

## Sierra Leonatik bidalitako gutuna

Lagun maiteok,

Mariama dut izena, eta Sierra Leonatik idazten dizuet. Sierra Leona Afrikako herrialde txikia da. Espero dut kontatuko dizkizuedan gauzak gustatuko zaizkizuela.

Nire herrialdeko hiriburua Freetown da. Sierra Leonako mendebaldea Ozeano Atlantikoak bustitzen du. Klima tropikala dugu; euriak maiatzean hasten dira, eta abendura bitartean irauten dute. Sierra Leonako hizkuntza ingelesa da, baina gehienok bertako beste hizkuntza batzuek mintzatzen gara.

Duela urte batzuk, gerra piztu zen nire herrialdean. Pertsona asko hil ziren, eta beste batzuek beren etxeak utzi behar izan zituzten. Herrialdea txiki-txiki eginda geratu zen, eta orain, apurka-apurka, aurrera egiten ahalegintzen gara. Esan behar dizuet Sierra Leona, zoritxarrez, munduko herrialderik txiroena dela.

Etxean, ama eta biok bizi gara. Aita gerrillariak hil zuten, eta anaia nagusiak beste leku batzuetara joan dira lan bila. Batek taxi bat eramaten du hirian, eta besteak diamante-meatze batean egiten du lan. Asko egin behar dute lan, eta hori dela-eta, oso gutxitan ikusten ditugu.

Gerraz geroztik, ama oso triste dago. Aita hil zenez, amak egin behar ditu etxeko eta soroko lan guztiak; ahal dudanean lagundu egiten diot, baina horretarako, egun batzuetan ez noa eskolara. Aurten, oso kezkatuta dago uztarekin. Laz, euri gutxi egin zuen, eta uzta oso eskasa izan zen; eta badirudi aurten gauza bera gertatuko dela. Zer jango dugu?

Adamak, gure auzokoak, bera ere txarto pasatzen ari dela esaten dio amari. Adama mendira joaten da mango basatiak eta papaiak biltzera; sasoi honetan, asko biltzen ditu, saltzeko eta diru-apur bat lortzeko. Niri asko gustatzen zaizkit, eta beti oparitzen dit bat edo bat, etxera datorrenean. Tamalez, ez du fruta horiek non gorde, eta ezin ditu hirira eraman bertan saltzeko, bidea oso egoera txarren dagoelako eta bidaiatzea oso arriskutsua delako.

Hala ere, arazoak arazo, ez dugu itxaropena galtzen. Laz, gure herrixkako buruzagiak gobernuaren laguntza bat lortu du arroza ereiteko. Haziak eman dizkigute eta haien landatzen lagunduko digute. Seguru asko, horri esker, janari-pixka bat gehiago izango dugu, eta hobetu elikatuko gara.

Beno, utzi egin behar zaituztet, lagunak ditut-eta zain. Gaur, irakaslea iritsiko da herrixkara, eta eskolako neska eta mutil guztiok ongietorri-festa bat prestatu dugu.

Ez ahaztu gurekin.

Agur bero bat.



Mariama



# Inork goserik izan ez dezan

IDATZI GUTUNA BOLI KOSTA-ko EMAKUMEI,  
BERAIEI BURUZ IKASI DITUZUN GAUZAK KONTATUZ.



# Otoitza egiteko



## Eskerrik asko, Jesus

Eskerrik asko, Jesus, lurragatik janariak ematen dizkigulako.  
Eskerrik asko, Jesus, euria eta eguzkiagatik.  
Eskerrik asko, Jesus, familiarengatik egunero janaria ematen digulako.  
Eskerrik asko, Jesus, osasuntsu gaudelako.  
Eskerrik asko, Jesus maitasunez zaintzen gaituzulako.



## Gosea pairatzen duten umeen alde

Jesus, munduko gu bezalako ume asko gosez hiltzen dira. Beraien amek asko sufritzen dute ez dutelako jateko ematerik. Aitak ahul daudenez ezin dute lan handirik egin. Jesus, irakatsi partekatzen, irakatsi ondo zaintzen ditugun gauzak, irakatsi janaria ondo zaintzen. Jesus, gosea direla eta sufritzen dutenek gure bihotzetan beti aurki dezaten leku bat.

## Afrikako amen alde

Jesus, Afrikako amek asko sufritzen dute seme-alabentzat janaririk ez dutelako.  
Jesus, Afrikako amek negar egiten dute seme-alabek gosea izaten dutelako.  
Jesus, ama horiei langundu nahi diegu.  
Jesus, ama horiek zoriontsuak izan daitezela nahi dugu.  
Jesus, lagundu partekatzerara.  
Jesus, lagundu eskuzabalak izatera.



## Misiolarien alde

Eskerrik asko, Jesus, misiolariengatik.  
Eskerrik asko, Jesus, behartsuei laguntzen dieten pertsonengatik.  
Eskerrik asko, Jesus, janaria partekatzen duten pertsonengatik.  
Eskerrik asko, Jesus, pobreen aldeko otoitza egin duten pertsonengatik.  
Eskerrik asko, Jesus, zu bezalakoak diren pertsonengatik.



San Francisco, 12A-3º  
48003 - BILBAO  
[mision-bi@terra.es](mailto:mision-bi@terra.es)